

SARRERA

Tekno-gu izeneko enpresak hezkuntza arlorako ikasmahai digital baten ekoizpena proposatu nahi du.

Proiektu hau hezkuntza sailera bideratuta egongo den proiektu bat izango da. Gure gizarteak jasan duen pandemia-egoerak bete-betean jo dio hezkuntza eta pedagogiaren munduari. Gure gelen digitalizazioaren azelarazioak, egoerak hala behartuta, haurrak eta nerabeak pantailetatik aldentzea komenigarri dela jakiteak dakarren kontraesanari soluzioa jartzea da gure helburua.



BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuak, hau da ikasmahai digitalak, tablet bat izango du erantsita. Tablet honek erabilpen mugatua izango du, hau da, testuinguru pedagogikora moldatutako softwarea izango du. Horretaz gain, tabletak eskolako arbelarekin bluetooht-aren bidez lotzeko aukera izango du. Horretaz gain, irakasgai bakoitzerako egokiak diren aplikazioak ezarriko ditugu eta orrialdea ere diseinatuko dugu. Materialari dagokionez, ikasleentzat egokia izango den mahai mota bat aukeratuko dugu. Hori dela eta, hezkuntzako jarduerak, ekintzak eta lanak egiteko bideratua egongo den proiektua izango da.

Proiektu honen balio kualitatiboa azpimarratzearen, ondorengo ezaugarriak azpimarratu nahiko genituzke:

Proiektuaren berezitasunetako bat, tabletaren software librea izango da, espreski hezkuntzara bideratuta dagoena, Librezaletan bitartez eskuragarri dagoen Luberr¹. Honi esker hainbat hezkuntza-aplikazio txertatuta izango

¹ <https://hezkuntza.librezale.eus/2020/02/24/luberriren-bertsio-berria/>

dira eta , eguneraketa ezberdinak ere txertatuko dituzte etorkizunean. Hirugarren prestazioa, berriz, tableta ikasmahaietan txertatuta egongo dela da, eta hau oso praktikoa izango da, babestuko duen beirate plaka batek eskoletako erritmoa jasaten lagunduko diolarik. Gailu elektronikoen joan-etorriek, hau da, piztu eta itzaltzeak suposatzen duten denbora aurrezteak eta gailuen iraupen fisiko eta teknologikoa luzatzea da beste helburuetako bat. Tablet bat bezain erosoak, eta ikasmahai bat bezain praktikoa.

Ikasle eta fase bakoitzak behar desberdinak ditu eta gure proiektuak haur edo nerabe bakoitzaren beharrei erantzuteko aukera eskainiko du. Mahaiaren artikulazioa moldagarria izango da, eta tabletaren konfigurazioa aniztasun funtzionalari behar bezala erantzuteko, ikasle guztien garapen akademikoa eta pertsonalerako aukera-berdintasuna bermatuz.

Proiektu honek edozein hizkuntza erabiltzeko aukera izango du. Hortaz, atzerriko ikasleren bat egonez gero, bazterturik sentitu gabe, ariketak, ekintzak eta jarduerak egiteko aukera izango du, baina, nahiz eta beste hizkuntza bat erabili euskarara hurbiltzeko ahaleginak egingo dira. Horren ondorioz, bere hizkuntza eta euskararen artean loturak egiten saiatuko gara, eta horrela, lan egiten duen bitartean euskara ikasten ere arituko da eta horrela, euskara ikasiko du. Etorkizun batean, gaur egun bere hizkuntzan egiten dituen ekintzak, jarduerak... euskaraz egiteko gai izango da.

Aniztasun sozio-ekonomikoari ere erantzungo dio, ikasle guztien digitalizazio-maila edo aukera berbera bermatuz, euren familien erosketa-ahalmena edozein delarik. Ikasle guztiek gelan mahai bat duten bezala, teknologia eskolak modu berean errazteko sortzen dugun elementua izango da gure produktua.

Esan dugun bezala, hezkuntzarako baliabide bat denez, arazo ekonomikoak dituzten familientzat lagungarria izan daiteke, hau da, ez dute gailu teknologikorik erosi behar, eskolaren berezko altzari bat izango baita. Beste aldetik, ikasleentzat ere lagungarria izan daiteke, ez baita gainean eraman behar den produktu bat eta irakasleek portatila edo tableta ateratzea eskatzen dutenean ez dute motxilan sartu eta atera ibili behar, beraz ez dute pisu hori eramango, eskolako mahaietan inkorporatuta egongo baita.

Produktuaren diseinuari dagokionez, ikasgeletan egoten diren mahaietan diseinu berbera izango da, baina mahai soil edo sinple bat izan beharrean, mahaiaren erdian tablet bat inkorporatuta edukiko du. Tableta mahaietan inkorporatzeko, sendoa eta sentsibilitate handia duen beirate bat ezarriko dugu eta horren gainean idaztea ahalbidetuko du. Beiratearen sendotasunari esker, modu tradizional edo ez digitalean lan egin behar denean, hau da, eskuz edo koadernoaren bitartez, mahaiaren gainean seguru eta eroso lan egin daiteke, pisua arazorik gabe sostengatzen baitu.

Produktuaren prezioa moldeagarria izango da aukeratutako tablet diseinuaren arabera, software simpleena duten tabletak merkeagoak izango dira software libre garatua dutenak baino, horiek garestiagoak izango baitira.

Guk diseinatutako produktuak arrisku asko murrizten ditu gai desberdinetan, adibidez, alderdi fisikoan: produktua eskolatik mugitzen ez denez, motxilak pisu gutxiago izango du, beraz bizkar eta lepoko arazoak murrizten ditu. Horretaz gain, ikusmen arazoak ere murriztu egingo dira, pantaila homologatuak begi bistako arazoak murriztuko baititu. Beste alderdi batetik, hezkuntza arriskuen murriztea dakar, hala nola, gure produktuak erabiltzen duen software libreak entretenimendu edo gai ludikoko jolasetarako sarbidea debekatu egiten du horrek, ikasketetan zentratzea ahalbidetzen du. Tabletaren diseinua alde batera utziz, hizkuntza guztietan ikasteko aukera izateak, epe luzera, ikasleen eskola uzte tasa murriztea ekar dezake. Horretaz gain, zailtasun edo ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten haurrek ere, tabletean aplikazioak instalatuta izango dituzte, beraien ezgaitasuna alde batera utziz, ikaskuntza errazagoa izan dadin.

Gure produktua eskuratzea erraza izango da, izan ere, guk hezkuntza sailera bideratuko dugu ezta hezkuntza sailak erabakiko du zenbat mahai kopuru erosiko dituen, beraz, hezkuntza sailari esker, ikasle guztiek produktua eskura izango dute.